



Funtsezko jarduerak:

Gure produkzioan, gure helburua bete ahal izateko, beharrezkoa izango dugu aplikazioa ondo eta era egokian diseinatzea, garatzea eta gestionatzea. Horren bitartez, eraginkortasuna lortu ahal izango dugu eta gainera, arazo gutxiago izango genituzke. Horrez gain ere, bezeroak askoz erosoago sentituko liriateke eta erraztasun gehiago izango lituzkete. Horregatik, interneten oinarrituko gara dena ondo antolatzeko eta aplikazioaren diseinuari arreta handia jarriko diogu .

Jendeak gure aplikazioa ezagutzeko Instagram eta Youtube-n iragarkiak jarriko ditugu diruaren truke. Sare sozial hauek aukeratu ditugu jende askok erabiltzen duelako eta batez ere gazteak.



Arazoren bat sortuz gero, internet bidez ere konpondu beharko dugu izan ere, dena internet-ekin egongo da harremanetan, horregatik, lehen esan bezala, interneten oinarritutako proiektu bat da eta horren inguruan dugun ezagutza oso garrantzitsua da. Hala ere, laurok informatika ikasten egon garenez ez dugu uste arazo handirik izatea, badakigulako nola egin behar dugun gauza bakoitza, baina arazoren bat izatekotan laguntzeko prest dauden pertsonen inguratuta gaude beraz, ez genuke arazo handirik izango.

Gainera, beste atal baten azaldu dugun bezala, bezeroak gurekin kontaktuan jartzeko aukera izango dute sare sozial ezberdinen bidez edota telefono bidez. Bertan beraien kritikak, ideiak, arazoak, etab. utz ditzakete eta guk dena kontuan izango dugu haiek eroso egoteko eta gure aplikazioa hobetzeko eta gorenean mantentzeko.

